



GERNIKA-LUMOKO ENPRESEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA EGITEN DUENA, 2025EAN EUSKARA PLANA ERATU IZATEAGATIK EDO INDARREAN DAUDENAK INPLEMENTATZEAGATIK.

1. Onuradunak

Izaera juridikoa duten enpresak izango dira eta Gernika-Lumoko Udalerrian kokatuak, eta ezinbestekoa izango da enpresek deialdiaren helburuarekin bat egin eta finkaturiko baldintzak betetzea.

2. Helburua

Enpresetan 2025 urtean Euskara Planak eratu edota indarrean zeudenak inplementatu izana diruz laguntzea.

3. Oinarri arautzaileak

Oinarri arautzaileak deialdian bertan jasotzen dira, Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko uztailaren 15eko erabakiaren bidez onartu bezala. Deialdiaren testua, oinarriak jasotzen dituenak, osorik argitaratu da DNDBn.

4. Zenbatekoa

Laguntza horietarako 10.000 euro aurreikusi dira.

5. Eskabideak aurkezteko epea

Hamabost (15) egun naturalekoa izango da, deialdiaren laburpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Gernika-Lumon, 2025eko irailaren 9an.

Jarduneko Alkatea

Iñaki Gorroño Etxebarrieta

